



35/2003 GOMENDIOA, ABENDUAREN 19KOA, GETXOKO UDALARI EGINA, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSO BAT BERARIAZ EBATZ DEZAN, ETA BEHAR BEZALA BETE DITZAN ONDARE ERANTZUKIZUNEZKO PROZEDURAK BIDERATU ETA EBAZTEKO LEGEZ EZARRITA DAUDEN EPEAK.

Aurrekariak

1. Getxoko Udalari 2001eko urtarrilaren 4an ondare erantzukizunezko erreklamazio bat egin zion pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen urte bereko azaroan, izan ere, erreklamazioa egin zuenetik denbora luzea igaro zen arren, ez baitzuen udalaren inolako erantzunik jaso. Kexagileak adierazi zuenez, udalaren Arkitektura Sailak -kaltearekin zerikusia zuen, antza-beharrezko txostena egiten ez zuelako ez zion erantzuten udalak, nahiz eta prozedura bideratzen ari zen pertsonak txosten hori sarritan eskatu zuen.
2. Udalari idatzi genion, gai horren berri eman ziezagun. Gainera, gogorarazi genion ondare erantzukizunezko prozeduretan -kexa eragin zuena bezalakoetan- ustezko lesio ordaingarria eragin duen zerbitzuak nahitaez egin behar izaten duela txostena (martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 10.1 artikulua, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 83.3 artikuluekin lotuta). Halaber, prozedura ebazteko lege ezarrita dagoen sei hilabeteko epea sobera gainditu zenez gero (martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 13. artikulua), lehenbailehen berariazko ebazpena eman behar zuela gogorarazi genion (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua). Eta legezko epeak bete behar zituela ere bai.
3. Lehen informazio-eskaera hori lau bider egin ondoren, udalak, azkenean, ia urtebete geroago erantzun zigun. Kexa sortarazi zuen ondare erantzukizunezko prozedurari zegokion administrazio-espeditentaren kopia bat igorri zigun.

Espeditentean azaltzen zenez, espresuki ebatzi zen interesdunaren erreklamazioa -ez zen onartu-, eta 2002ko azaroaren 11n jakinarazi zitzaion ebazpena. Horrela bada, kexagileak azaldu zigun arazoa -alegia, bere erreklamazioari ez zitzaiola berariaz erantzun- konponduta geratu zela ulertu genuen.

Bestalde, administrazio-espeditentean egiaztatu zenez, prozedura bideratzeko erabili zen neurritz gaineko denbora hori -legez aurreikusitako epea halako bi, gutxi gorabehera-, batik bat Arkitektura Sailak eragin zuen, atzeratu egin



baitzen prozedura ebazteko beharrezkoa eta erabakigarria zen txostena egiterakoan. Jakina, ustezko lesio ordaingarria sortu zuen zerbitzua izanik, sail horri zegokion txosten hori paratzea. Era berean, espedienteak agerian jarri zuen izapide hori burutzeko atzerapena oro har gertatzen zela, eta sail horren txostena derrigorrezkoa zen ondare erantzukizunezko hainbat prozeduratan zuela eragina.

Horregatik, berriz ere, udalari idatzi eta gogorarazi genion prozedura horietan ebazpen-epea bete beharra daukala. Orobat, prozedurak bideratzean, kexa honetan izandakoa bezalako atzerapen neurrigabeak eragozteko zein neurri zuzentzaile hartu zituen adierazteko eskatu genion.

4. Gure eskaerari erantzunez, udalak adierazi zigun langileak berriz kontratatzeko asmoa zuela, eta neurri hori nahikoa izango zela, bere ustez, ondare erantzukizunezko prozedurak bideratzean gertatzen ari ziren atzerapen handiak galarazteko. Bere esanean, Arkitektura Sailean lana metatu zelako gertatu ziren atzerapenak.
5. Azken informazio hori jaso genuenetik bost hilabete igaro ostean, kontratazio berriak, egiaz, legezko epeak betetzeko balio izan zuen ala ez adieraz diezagun eskatu genion udalari.

Interesdunak esan zigunez, administrazioaren isiltasunagatik arazoak -kexan azaldutakoak- bere hartan jarraitzen zuen, baina, aldi hartan, 2002ko abenduaren 11n berak aurkeztu zuen berraztertze errekurtso baten ebazpena ematerakoan. Izan ere, bere lehen erreklamazioa ezetsi zuen erabakiaren kontra errekurtsoa jarri zuen, eta, dirudienez, udalak artean ez zion errekurtso horri erantzun. Udalari horren berri eman genion, eta ostera adierazi genion errekurtsoa berariaz ebatzi behar zuela, eta legean ezarritako epeak bete behar zituela.

6. Udalak honela erantzun zion azkeneko laguntza-eskaera horri:

"...esan behar dut arkitektoen lan-poltsa eratzeagatik hautaketa prozesua burutu izan dela, nahiz eta hautaketako saioetan lehenena ateratakoa oraindik kontratatu izan ez den.

Gainetik jakiteko duzu ez zaiola oraindik orain erantzunik eman udal ebazpenaren kontra sartutako birjarpen errekurtsuari, aurkeztutako erreklamari gaitziritzi zitzaionean." (sic)



7. Interesdunak eskuratu digun informazioaren arabera, udalak oraindik ez du berariaz ebatzi errekurtsio hori.

Gogoetak

1. Erakunde eskubide-bermatzaile honek ezin du onartu administrazioaren isiltasuna ohiko jokaera gisa erabiltzea, hori zuritu nahian hainbat arrazoi alega badaitezke ere, bada, jokaera horrek, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan agindutakoa urratzeaz gain, oso egoera kaltegarrian jartzen ditu interesdunak, beren eskubide legitimoak babesteko orduan.
2. Udalak eman dizkigun datuak kontuan izanik, ezin dugu onartu berorrek oraindik arazo hori behin betiko ez konpondu izana, izan ere, arazo horrek eragozten dio martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare erantzukizuneko prozedurak bideratu eta ebazteko ezarrita dituen epeak behar bezala betetzea, eta, bereziki, eragindako udal zerbitzuak beharrezko txosten erabakigarria egin dezan, arau horren 10.2 artikulua ezarrita duen hamar eguneko epea, ia urtebete igaro baita gai horren gainean neurri zuzentzaileak hartuko zituela adierazi zigunetik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

35/2003 GOMENDIOA, abenduaren 19koa, Getxoko Udalari egina

Berariaz ebatz dezala kexagileak bere ondare erantzukizuneko erreklamazioa ezetsi zuen erabakiaren kontra jarritako errekurtsioa.

Behar bezala bete ditzala martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare erantzukizuneko prozedurak bideratu eta ebazteko ezarrita dituen epeak.